

## \* Hizpideak

## Demokrataz jantzita

Xabin Makazaga  
xmakazaga@berria.info

Ohean hil da Fraga, eta demokrataz jantzita hilobiratuko dute. Espainiako Konstituzioaren aitetako bat izan zen, eta diktaduratik demokraziarako jauzia emateko egin zuen «ekarpena» goraiatu du, oro har, Espainiako klase politikoak. «Mendeko politikaririk handienetakoa», Raxoiren arabera, eta «aparteko intelektuala», Del Burgoren hitzetan, iragan frankistagatik eta transizio krimenengatik epaitegietan erantzun gabe joan da Fraga. Hori, Eus-


kal Herrian, gehienek nabarmendu dute. Espainian, bakarren batzuek.

1976ko martxoaren 3a eta maiatzaren 9a ondo iltzatuta daude euskaldunon memorian, akordatu nahi duenarentzat. Gasteizko greban bost lagun hil zituen Polizia militarrek. Montejurran, karlisten gurutze bidean, paramilitarrek bi lagun hil zituzten, Guardia Zibila eta Polizia lekuko zirela. Fraga zen garai hartan Gobernazio ministroa, eta krimen horiek bere ardurapekoak ziren. PPrent sortzailea, ordea, aspaldi pasa zuten araztegitik, eta birgaitu. Barkamenik eskatu ez, eta damurik ere ez du agertu. Baina «eredugarria» izan da.

## Giltzarria

Ez dakit orain baden halako ohiturarik, baina orain urte batzuk *leitmotiv* eta hitz giltzarrien bila ibiltzen ginen maite genituen nobeletan. Etsipena izango zen nobela bateko hitz klabea, eguzki-sapa beste batekoa, inkomunikazioa izango zen beste nobela hartako hitz errepikatuen. *Leturiaren egunkari izkutua* irakurri genuenean, ez genuen hitz errepikatuenaren bila hasi beharrik: *bakar* hitza eta haren aldaerak (*bakarrik, bakarti, bakardade...*) ziren bertako protagonista. Orduko gure gustuko kanta batek ere bakardadea zuen giltzarri: bakardade handi bat neukan bihotzean... bakarrik zegok hura han bere zervan... Godoten esperoan egoten heziak ginen, Baina Godot sekula agertzen ez. Bakarrik geunden, bakardadeak areagotu egiten zigun existentziaren zama. Existentziak goragalea ekarri zigun Sartrearekin. Munduan arrotz izaten ikasi genuen Camusekin...

Txillardegik abisatu bezala, bakarrik geunden Zerubiden.




Hitz beste

Anjel Lertxundi

## ☺ Zaldieroa

## De Rerum Natura

Zaldieroa@zaldieroa.com



## Justizia

Texasen abortatu nahi duten emakumeak behartu egingo dituzte fetua entzutera. Ekografien bitartez fetua entzun beharko dute. Ez dakit nola deskribatu sentitu nuena irakurtzerakoa. Emozio nahasketak, erantzun ezberdinak ekarri zizkidan burura, batzuk umore puntu bat badute, beste batzuk mala letzez beteta daude. Saiatuko naiz ondo antolatzen; umorea eta haserrea uztertzen. Neurri ezberdinak okurritu zaizkit Texaseko legegileei proposatzeko. Adibidez, masturbazioetan galtzen den esperma, mikroskopioz begiratzera behartzea. Hilerokoa izaterakoa ere, behartu dezakete bizitza ahalbidetzen dituzten organo eta haien jario guztiak begiratzera. Hori segur aski zerrikeri hutsa irudituko zaie Texaseko adituei. Hala ere, proposamen hauek Texaseko lagunen logika berbera jarraitzen dute. Emakume biologo bati irakurri nion behin, bizitza unitateak mintza behar duela, bizitza gisa ulertzeko. Hemen bizitza autonomia esan nahi dut, noski. Badaudelako beste espezi-



Larrepetit

Josebe Iturrioz

Texasen abortatu nahi duten emakumeak behartu egingo dituzte fetua entzutera

men batzuk, besteen mintza zultzez eta zeharkatzez bizi direnak, adibidez, parasitoak.

Fetua entzunaraztea, emakumea adingabe bilakatzea da. Ez da nahiko traumatikoa prozesua, bidean gehiago torturatu behar izateko? Abortatzeko eskubide eta baldintzak dituzten herrialdeetan ez da gehiago abortatzen, emakume gutxiago hiltzen dira. Hipokresia puntu bat ere badu. Abortoaren kontrako defendatzaile sutsuenarikoa bat eliza delako, eta, horiei, askotan benetako bizitza, bost axola! Beste egunean, ume baten hilobia ireki zuten, eta haren amak jakin zuen bere alaba ez zegoela hilda, lapurtua baizik. Horren inguruan ze neurri okurrituko zitzairen gure txastar maiteei? Eta elizen bortxaketen inguruan? Seguruenik beraiek neurri sadikoenak asmatuko lituzkete. Urteak daramate emakumeak torturatzen, gehienetan emakume autonomoak, beraien gorputzaren jabe diren emakumeak. Lehen, sorginak torturatzeko burnia erabiltzen zuten, orain ekografiak.

## ✉ Zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta BERRIAK mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: [iritzia@berria.info](mailto:iritzia@berria.info).

## On Pako Aristi jaunari

Izango dira aste batzuk urte luzez ohi zenuen bezala, igande goizeko mezatan organoa jotzeari utziko zeniola iragarri zenuela. Ez genekiena zen, organoa jotzeari utzi eta pulpitutik sermoiak botatzen hasiko zirela, igandea bai eta igandea ez, hain zurea duzun apaiz tonu horretan, independentista bekatarien aurka. Eliza eta harekin loturiko oro behin betiko utziko zenuela uste genuenean, haren gaitzik larrienak hartu dituzu gure kontra aritzeko.

Bekatari eta inozoak gu, Amaiurren apustuan sinetsi eta sinesten dugunak. Koitarduak Espainiako legeen menpeko Kongresu, Foru Aldundi, Udal eta bestelako erakundetatik, euskararen, langileen eskubideen, nekazarien, ingurumenaren, ikastolen eta beste herri eredu baten alde lanean

ari garelako. Gaixoak gu, deabrua (Espainia) elikatzen eta balioztatzen ari garelako horrela, eta ez beste ezertan. Nafar txarrak, gu, Gaztelak forua emaniko herrietan bizitzen jarraitzen dugunak.

Barka ezazu gure ergelkeria, On Pako Aristi jauna, oraindik eguneroko lanean sinesten baitugu; baina barkaiezaguz, batez ere, zu bezala abertzale puru eta moralak ez izateagatik. Liburuz liburu eta artikuluz artikuluz jarraitu izan zaitut, baina egia esan, gehiago estimatzen zintudan organoa jotzen zenuenean, sermoiak botatzen hasi zarenean baino.

Hiru avemaria esango ditut, nire bekatuengatik eta herri hau egunero-egunero aurrera eramateko tentaldian erortzeagatik, eta egin bedi zure nahia, periodikuetan bezala, lurrean ere, On Aristi jauna. Josu Iribar. Zarautz.